Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko azaroaren 30a, astelehena — 229 — Lunes, a 30 de noviembre de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Covid-19aren ondoriozko ostalarien egoera arintzeko dirulaguntzak (BDNS kodea: 534382).*

AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak –SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratzen duenak– birusaren hedapenari aurre egiteko askotariko neurriak aurreikusten ditu, eta horien erabilgarritasuna egiaztatuta geratu da, gure inguruko herrialdeek ere modu sistematikoan neurri horietara jo baitute, hori guztia Osasunaren Mundu Erakundeak eta nazioarteko beste erakunde batzuek adierazitakoarekin bat etorriz.

Testuinguru horretan, lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak, bere eskumenak erabiliz, adierazpen orokor batez gain, eranskin bat ere zehaztu zuen, eta, horren bidez, osasun publikoaren arloan jada hartutako neurri espezifikoak zehatz-mehatz eguneratuta, oinarrizko esku- bideei eragiten dieten eta alarma-egoeraren erregulazioan kokatzen duen aurreikuspen espezifiko bat duten hainbat neurri zehazten dira, agintaritza eskudunak osasun publikoaren krisi-egoerari aurre egiteko ezinbestekoak diren modulazio egokiak ezarri ahal izan ditzan, haren larritasun handiarekin proportzionalak, oinarrizko eskubiderik eten gabe.

Alarma egoeraren deklarazioak eragin zuzena du herritarren eguneroko bizitan, bai beraien mugitzeko askatasunean zein beste eskubide batzuen egikaritzan.

Honen aurrean Udalak proposatu nahi du Covid-19 coronavirusaren ondorio eta bilakaerak eragindako egoerak arintzeko helburuarekin ez-ohiko dirulaguntza deialdia onartzea ostalariei dagokionean.

Ez ohiko diru-laguntza honen bidez, nahitanahiez aplikatu beharreko salbuespenezko prebentzio neurriak sortarazitako egoera zailei aurre egitea eta erantzun bat ematea nahi da. Udala herritarren aurrean dagoen lehen instituzioa eta gertukoena da, eta lehen erantzunak bertatik ere bideratuko dira, gainontzeko Administrazioek eremu honetan epe labur nahiz ertainean har ditzaketen bestelako neurrien kalterik gabe.

Aldizkakotasun izaerarik gabeko diru-laguntzak emango dira.

Eskumenari dagokionez, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuloak udalerrien eskumen propioak arautzen ditu. Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutako esparruan –Covid-19ak eragindako osasun krisiaren Kudeaketarako eman diren arauak–, Azpeitiko Udalak hainbat eskumen ditu babes zibila eta emergentziak antolatzeko eta kudeatzeko. Horrez gain, eskumenak ditu gizarte-zerbitzuen alorrean, diru-sarreren bermea eta gizarteratzea antolatzeko. Ondorioz, lege horren baitan, Alkatetzak 2020ko azaroaren 18an emandako Ebazpenaren bidez,

EBATZI DU

*Lehena.* Covid-19aren ondoriozko ostalarien egoera arintzeko dirulaguntzaren deialdia egitea.

*Bigarrena.* Deialdi horri aurre egiteko 2020. ekitaldiko udal aurrekontuan 70.000 euroko gastua baimentzea, Azpeitiko Udaleko aurrekontuaren baitan:

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Ayudas para paliar la situación de los hosteleros por Covid-19 (Código BDNS: 534382).*

ANTECEDENTES Y CONTEXTO

El Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara el estado de alarma para frenar la propagación de infecciones por SARS-CoV-2, prevé medidas diversas para hacer frente a la propagación del virus, cuya utilidad ha quedado acreditada, ya que los países de nuestro entorno han recurrido a ellas de forma sistemática, todo ello en consonancia con lo señalado por la Organización Mundial de la Salud y otros organismos internacionales.

En este contexto, el Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, en el ejercicio de sus competencias, estableció, además de una declaración general, un anexo en el que, mediante una actualización exhaustiva de las medidas específicas ya adoptadas en materia de salud pública, se concretan una serie de medidas que afectan a los derechos fundamentales y que contienen una previsión específica que los sitúa en la regulación de la situación de alarma, a fin de que la autoridad competente pueda establecer modulaciones adecuadas, proporcionadas a su gravedad, sin suspender derechos fundamentales.

La declaración de la situación de alarma afecta directamente a la vida cotidiana de los ciudadanos, tanto en su libertad de movimientos como en el ejercicio de otros derechos.

Ante esta situación, el Ayuntamiento propone la aprobación de la convocatoria de subvención extraordinaria para paliar las situaciones derivadas de la evolución y consecuencias del coronavirus Covid-19, cuando se trate de hosteleros.

Con esta subvención extraordinaria se pretende afrontar y dar respuesta a situaciones difíciles provocadas por medidas preventivas excepcionales de aplicación obligatoria. El Ayuntamiento es la primera institución ante la ciudadanía y la más cercana, desde donde se canalizarán las primeras respuestas, sin perjuicio de otras medidas que en este ámbito puedan adoptar el resto de las Administraciones a corto y medio plazo.

Se concederán subvenciones sin carácter de periodicidad.

En cuanto a la competencia, el artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, regula las competencias propias de los municipios. En el marco de lo dispuesto en la presente ley y en la legislación aplicable, normas dictadas para la gestión de la crisis sanitaria provocada por el Covid-19, el Ayuntamiento de Azpeitia ostenta competencias en materia de ordenación y gestión de la protección civil y emergencias. Además, tiene competencias en materia de servicios sociales para ordenar la garantía de ingresos y la inclusión social. En su virtud, por Resolución de Alcaldía de 18 de noviembre de 2020,

RESUELVE

*Primero.* Convocar una subvención destinada a paliar la situación de los hosteleros derivados del Covid-19.

*Segundo.* Autorizar un gasto de 70.000 euros en el presupuesto municipal del ejercicio 2020 para hacer frente a esta convocatoria, dentro del presupuesto del Ayuntamiento de Azpeitia:

EK\CV GAO-I-2020-06171

1.1000.471.311.00.01.2020 Covid-19 merkataritza.

*Hirugarrena.* Dirulaguntzak esleitzeko prozedura lehiaketarik gabeko konkurrentziarena izango da, eta deialdiak jasoko ditu, onuraduna izateko baldintzak, egitasmoaren balorazioa egiteko erizpideak, eta onuradunak kontuan izan behar dituen epeak.

Ezargarri izango den araudia honako hau izango da: Deialdiaren oinarriak, Azpeitiko Udalaren diru-laguntzak arautzen duen udal-agintaraua, Diru-laguntzen Araudi Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta hau garatzen duen Erreglamendua.

*Laugarrena.* Diru-laguntza deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren Web orrian argitaratuko da.

*Bosgarrena.* Erabaki honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

ERANSKINA

*Covid-19aren ondoriozko ostalarien egoera arintzeko dirulaguntzak.*

*1. Dirulaguntzen xedea.*

Oinarri hauen helburua da, lehiakortasunik gabeko konkurrentziazko modalitatean, dirulaguntzak emateari aplikatu beharreko oinarri arautzaileak ezartzea, 38/2020 Dekretuan, azaroaren 6koa, lehendakariarena, zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko hartutako neurriek Azpeitiko ostalaritza eta jatetxe establezimenduen artean eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko.

Dirulaguntzatzat hartuko da zuzeneko kontraprestaziorik gabeko funts publikoak erabiltzea, aipatutako dekretua argitaratu izanaren ondorioak beren jardueran eragina izan duten enpresek jasandako gastu arrunten zati bat ordaintzeko, Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzetan.

*2. Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua.*

Deialdi honetan dirulaguntzetara bideratuko den partidaren zenbateko guztia 70.000 € euro dira, 2020ko aurrekontukoaren partida honen kontura:

1 1000.471.311.00.01 2020 Covid-19 merkataritza.

Nolanahi ere, eskaeren kopurua eta zenbatekoa bideratutako kopurua baino handiagoa bada, Azpeitiko Udalak zenbateko hori handitu ahal izango du, bere finantza-erabilgarritasunaren arabera.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin ere.

*3. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauen erregimena aplikatuko zaie soilik baldintza hauek betetzen dituzten enpresa eta norberaren konturako langileei:

— Azpeitiko JEZ erroldan alta emanda egotea, gutxienez, 2020ko azaroaren 6tik.

— Jarduera ostalaritza-jarduerei dagokien JEZko epigraferen bati egokitzea, modu orokorrean 67 multzokoa eta aldi berean, 38/2020 azaroaren 6ko dekretuaren laugarren puntuan ezarritakoak eragiten dietenei.

1.1000.471.311.00.01.2020 Comercio Covid-19.

*Tercero.* El procedimiento de adjudicación de las subvenciones será el de concurrencia no competitiva, y la convocatoria recogerá las condiciones para obtener la condición de beneficiario, los criterios de valoración del proyecto y los plazos a tener en cuenta por el beneficiario.

La normativa aplicable será la siguiente: las bases de la convocatoria, la Orden municipal reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Azpeitia, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, reguladora del régimen general de subvenciones y el Reglamento de desarrollo de la presente.

*Cuarto.* La convocatoria de subvenciones se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento.

*Quinto.* Contra el presente Acuerdo podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria o ser impugnado directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. Los plazos se computarán, en todo caso, a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

ANEXO

*Ayudas para paliar la situación de los hosteleros por Covid-19.*

*1. Objeto de las subvenciones.*

El objeto de las presentes bases es establecer las bases reguladoras aplicables a la concesión de subvenciones, en la modalidad de concurrencia no competitiva, en el Decreto 38/2020, de 6 de noviembre, del Lehendakari, de modificación del Decreto 36/2020, de 26 de octubre, del Lehendakari, por el que se adoptan medidas preventivas de salud pública en el ámbito de la declaración de situación de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y de las medidas adoptadas para frenar la propagación de los establecimientos de hostelería y restauración de Azpeitia por SARS-CoV-2.

Tendrá la consideración de subvención la utilización de fondos públicos sin contraprestación directa para sufragar parte de los gastos corrientes soportados por las empresas que hayan repercutido en su actividad los efectos de la publicación del citado Decreto, en los términos previstos en esta Ordenanza.

*2. Partidas con cargo a las que se realizarán las subvenciones y cuantía máxima de las subvenciones a conceder.*

El importe total de la partida destinada a subvenciones en esta convocatoria es de 70.000 € con cargo a la partida presupuestaria 2020:

1 1000.471.311.00.01 2020 Covid-19 merkataritza.

No obstante, en el caso de que el número y cuantía de las solicitudes sea superior a la cantidad destinada, el Ayuntamiento de Azpeitia podrá incrementar dicha cantidad en función de su disponibilidad financiera.

En ningún caso el importe de la subvención podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

*3. Beneficiarios.*

El régimen de estas subvenciones sólo será de aplicación a las empresas y trabajadores por cuenta propia que cumplan los siguientes requisitos:

— Estar dado de alta en el Censo IAE de Azpeitia, al menos, desde el 6 de noviembre de 2020.

— Corresponder la actividad a alguno de los epígrafes del IAE referente a las actividades de hostelería, de forma general del grupo 67 y a su vez los afectados por lo establecido en el punto cuatro del Decreto 38/2020, de 6 de noviembre.

EK\CV GAO-I-2020-06171

— Urtean 1.000.000 € edo gutxiagoko fakturazioa izatea.

Fakturaziotzat hartuko da bere jardueraren guztizko negozio-zifra edo bere jardueraren ondoriozko guztizko salmenta-bolumena.

Onuradunak JEZ zergaren epigrafe bat baino gehiagotan izena emanda badaude, fakturazio datuek erreferentzia egingo diete jarduera guztietan sortutakoaren baturari.

Onuradunek jarduerarekin ez badute urte osoa osatu, benetan egindako tartearekin proportzionalki kalkulatuko da urtea.

— Baldintzak betetzen ez dituzten enpresekin loturarik ez izatea edo haiek partaidetzarik ez izatea.

— Zergetako, Gizarte Segurantzako eta Azpeitiko Udalarekiko betebeharrak egunean izatea, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko adierazitako debekuren batean ez egotea.

Berariaz deialdi honetatik kanpo geratzen dira azaroak 6ko 38/2020 dekretuan bigarren xedapeneko laugarren puntuan aipatzen diren txokoak eta elkarte gastronomikoak.

Ezingo dituzte dirulaguntza hauek eskatu pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, ondasun-erkidegoek edo beste edozein batasun ekonomiko edo ondare bereizik, izaera juridiko propiorik ez badute.

Azken kasu horretan, partehartzaileak, erkideak edo parekoak diren norberaren konturako pertsonek, egoki bada, alegatu ahal izango dute jarduera ekonomikoa burutzen dutela batasun ekonomiko edo ondare bereizi horien bitartez.

Azken kasu horretan, partehartzaileak, erkideak edo parekoak diren norberaren konturako pertsonek, egoki bada, alegatu ahal izango dute jarduera ekonomikoa burutzen dutela batasun ekonomiko edo ondare bereizi horien bitartez.

*4. Onuradunen bateraezintasunak.*

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste Administrazioak martxan jarri ditzazketen laguntzekin baino ezingo da Covid-19aren ondorioz sortutako galera ekonomikoa baino gehiago jaso. Halakorik gertauz gero, 38/2003 Dirulaguntzen araudiak aurreikusten duen Itzulera prozedura martxan jarriko da.

*5. Diruz lagundu daitezkeen gastuen tipologia.*

Deialdi honen ondorioetarako, hauek hartuko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat:

— Jarduera geldiarazteagatik fakturazioan eragindako murrizketa.

— Jarduera egiten den establezimenduaren edo establezimenduen alokairua.

— Jarduera ekonomikoari lotutako ondasunak eskuratzea edo egokitzea banku-erakundeen bidez finantzatzea.

BEZ eta bestela zeharkako zergak diruz lagunduko dira, soilik berreskuragarriak edo konpentsagarriak ez badira.

*6 Dirulaguntzaren kopurua.*

Zenbateko hauek ezartzen dira, onuradunaren eta tipologiaren arabera:

— 600 euroko kopuru finkoa.

— Jarduera egiten den establezimenduaren alokairu gastuengatik, hileko alokairu gastuaren % 50 beti ere 400 euroko gehienezko kopurua kontuan hartuz.

— Jarduerari atxikitako ondasunen eskuraketa edo egokitzea finantzatzen duen maileguen interesak eta amortizazio-gastuare hileko kopuruaren % 50 beti ere 400 euroko gehinezko kopurua kontuan hartuz.

* Ordainketa bakarra gauzatuko da. Hileko gastua kopurua kalkulatzeko erabiliko den irizpidea besterik ez da.

— Tener una facturación anual igual o inferior a 1.000.000 €.

Se entenderá por facturación la cifra de negocios total de su actividad o el volumen de ventas total derivado de su actividad.

En el caso de que los beneficiarios estén inscritos en más de un epígrafe del IAE, los datos de facturación harán referencia a la suma de lo generado en todas las actividades.

En el caso de que las personas beneficiarias no hubieran completado el año completo con la actividad, éste se calculará proporcionalmente al tiempo efectivamente realizado.

— La falta de vinculación o participación de empresas que no cumplan los requisitos.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social y al Ayuntamiento de Azpeitia, así como de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario recogidas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones.

Quedan expresamente excluidas de la presente convocatoria los txokos y las sociedades gastronómicas citadas en l cuarto punto de la disposición segunda del decreto 38/2020 de 6 de noviembre.

No podrán solicitar estas subvenciones las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, comunidades de bienes o cualquier otra unidad económica o patrimonio singular que no tengan personalidad jurídica propia.

En este último caso, las personas participantes, comunes o asimiladas por cuenta propia podrán alegar, si procede, el ejercicio de la actividad económica a través de dichas uniones económicas o patrimonios separados.

En este último caso, las personas participantes, comunes o asimiladas por cuenta propia podrán alegar, si procede, el ejercicio de la actividad económica a través de dichas uniones económicas o patrimonios separados.

*4. Incompatibilidades de los beneficiarios.*

Esta línea de ayuda será compatible con las ayudas que puedan poner en marcha otras Administraciones, no se podrá percibir más que la pérdida económica generada por la Covid-19. En caso de producirse ésta, se iniciará el procedimiento de reintegro previsto en la normativa de subvenciones 38/2003.

*5 Tipología de gastos subvencionables.*

A los efectos de la presente convocatoria se considerarán gastos subvencionables los siguientes:

— Reducción de facturación por paralización de la actividad.

— Alquiler del establecimiento o establecimientos donde se realiza la actividad.

— Financiación a través de entidades bancarias de la adquisición o adaptación de bienes afectos a la actividad económica.

El IVA y en su defecto los impuestos indirectos sólo serán subvencionables si no son recuperables o compensables.

*6 Cuantía de la subvención.*

Se establecen los siguientes importes por beneficiario y tipología:

— Una cantidad fija de 600 euros.

— Por gastos de alquiler del establecimiento donde se realiza la actividad, el 50 % del gasto de alquiler mensual, teniendo en cuenta en todo caso la cuantía máxima de 400 euros.

— Los intereses y gastos de amortización de los préstamos que financien la adquisición o adecuación de los bienes afectos a la actividad, hasta un máximo del 50 % del gasto mensual, con un importe máximo de 400 euros.

* Se realizará un único pago. El gasto mensual es un criterio que se utilizará para calcular el importe.

EK\CV GAO-I-2020-06171

*7. Laguntzak ematea.*

Laguntza horiek izapidetzeak, salbuespen gisa, lehia baztertzen du, kasu horietan ez baita beharrezkoa eskabideak elkarren artean alderatzea, eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen edozein enpresa edo pertsona autonomori laguntzeko interes berezia dago.

Era berean, lehiarik gabeko konkurrentzia da laguntza-eskaerei behar bezalako arretaz erantzuteko aukera ematen duen mekanismoa.

Udalak eskaerak metatu ahal izango ditu dirulaguntza emateko ebazpen bakarrean. Zentzu beran, eskaerak jaso ahala ebazpenak emango ditu.

Ebazpenak administrazio-bideari amaiera emango dio eta udalaren webgunean argitaratuko da (https://azpeitia.eus/zerbitzuak-eta-tramiteak/diru-laguntzak/tramitean-dauden-diru-laguntzak).

Ebazpenaren argitaratze eguna izango da kontuan hartuko dena epeak zenbatzeko. Argitaratze egunean bertan, Udalak abisua igorriko die, posta elektronikoz, eskatzaileei.

*8. Prozedura.*

Eskaerak Udalaren HAZ gunean presentzialki, betiere osasun egoerak ahalbidetzen badu, edota elektronikoki Udaleko Web orriaren bidez, diru-laguntza programaren barruan, jasotako eskaera orriaren arabera aurkeztuko dira, bestela prozedura aldatuko litzateke.

Eskaera orriarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskatzaileek:

— Nortasuna:

NAN / IFZ.

— Establezimenduaren alokairu kontratuaren kopia eguneratua hileroko kuotaren zenbatekoa zehaztuz.

— Maileguaren kopia eguneratua hileroko kuotaren kopurua zehaztuz.

— Bankuko kontu korronteko titularitatea egiaztatzen duen ziurtagiria.

*9. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskabideak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 10 egun naturalekoa izango da.

*10. Laguntzak ordaintzea.*

Dirulaguntza ordainduko da deialdia ebatzi ondoren eta ebazpenean ezarritako epean.

Azpeitia, 2020ko azaroaren 18a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (6171)

*7. Concesión de ayudas.*

La tramitación de estas ayudas, excepcionalmente, excluye la competencia, ya que en estos casos no es necesario comparar las solicitudes entre sí, existiendo un interés especial en colaborar con cualquier empresa o persona autónoma que cumpla los requisitos establecidos en la presente convocatoria.

Asimismo, la concurrencia no competitiva es el mecanismo que permite atender las solicitudes de ayuda con la debida diligencia.

El Ayuntamiento podrá acumular solicitudes en una única resolución de concesión. En el mismo sentido, resolverá en función de la recepción de las solicitudes.

La resolución pondrá fin a la vía administrativa y se publicará en la página web del Ayuntamiento (https://azpeitia.eus/zerbitzuak-eta-tramiteak/diru-laguntzak/izapidetean-dauden-diru-laguntzak).

A efectos del cómputo de plazos se tendrá en cuenta la fecha de publicación de la resolución. El mismo día de la publicación, el Ayuntamiento enviará un aviso por correo electrónico a los solicitantes.

*8. Procedimiento.*

Las solicitudes se presentarán de forma presencial en el SAC del Ayuntamiento, siempre que el estado de salud lo permita, o electrónicamente a través de la página web del Ayuntamiento, dentro del programa subvencional, según la hoja de solicitud recibida, en caso contrario se modificaría el procedimiento.

Los solicitantes deberán presentar junto con el impreso de solicitud la siguiente documentación:

— Personalidad:

DNI / CIF.

— Copia del contrato actualizado del alquiler de establecimiento especificando el importe de la cuota mensual.

— Copia del préstamo actualizado especificando el importe de la cuota mensual.

— Certificado de titularidad de la cuenta corriente bancaria.

*9. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes será de 10 días naturales a partir del siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*10. Pago de las ayudas.*

El pago de la subvención se realizará una vez resuelta la convocatoria y dentro del plazo establecido en la misma.

Azpeitia, a 18 de noviembre de 2020.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (6171)


EK\CV GAO-I-2020-06171